



HARRESPILA BERRIA ARALARREN

Eskultura proiektua egin du Guillermo Olmok Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-04-26

VIIURTEA 1.686.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aurreko egunetan erdi gaixo egon zen Perurena harri-jasotzailea, baina lana ederki bete zuen atzokoan. E. EZEIZA

234 KILOKOA ALTXA DU INAXIO PERURENAK HERRITARREN AURREAN

LEITZA Amazabal pilotalekuan lortu zuen marka harri-jasotzaile gazteak; esku bakarrarekin sorbaldan jarri zuen zilindroa

Xabier Lujua azkarrena izan da II. Ñañarri Rallyesprintean

TOLOSALDEA Bigarren Joseba Zapirain izan zen, sei segundora; hirugarren Ramon Apalantza 4



Xabier Lujua irabazlea, Abaltzisketatik Amezetara jaisten. N. URBIZU

Lan-munduko lehen euskara plana abian jarri du Taunik

VILLABONA Euskara Zerbitzuaren eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntza jaso du enpresak 6

digital
h
@

Astelehenean, apirilak 27, 12:30ean

LEIRE OLABERRIA

ikaztegietako Txirrindulari profesionalarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



Flatus vocis



» Uzturretik

Jokin Barriola

Eguna zoragarri hasi da. Goizean-goizeko freskura, leihotik ikusten ditudan belatsoen berdea,

txorien kantak... baina telebista piztu dut. Katez aldatzen hasi naiz eta Espainiako telebistak duen 24 orduko katean Madrilako Diputatuen Kongresutik emititzen ari dira. Gobernuari nohizean behin egiten zaion kontrol saio hoietakoa bat da.

Nahaspilatsu samarra izanena da, baina ikusi eta entzundakoaren kronologia labur moduko bat irakurriko duzu ondoren. Josu Erko-rekaren interbentzioa entzun dut lehenik. Kopetilun zegoen gizona. Antza Zapaterok esandako zerbat-

tek min egin dio. "Tontorron" deitu omen dio. Latza gero! Badirudi aurreko intenbertzio baten erantzun bezala presidenteak hitz huts modura hartu dituela Erkorekaren hitzak, garrantzia kenduz, alegia. Josuk, geroago, "flatus vocis" edo zentzugabeko hitz huts bezala definitu ditu Zapateroren hitzak. Latza gero duela aste gutxi arte bikotekide izandakoak halako eztabaida sentituan ikuste! Eskutik hartuta zebiltzan joan zen martxoaren hasiera arte eta orain, berriz, ezker-eskuin, matrailezurrera el-

karri botatzen dizkioten gantxoak etengabeak dira.

Estatu mailarako iragarria dagoen aurtengo PIB-aren jeitsiera %3koa da, langabezia %20an kokatzea espero da eta ez dut uste gutako inor gaur egun bizi dugun egoera ze mailaraino okertu daitekeen ulertzeraz urrutitik ere gerturatzaren gain. Baina tira, momentu hobek eta okerragoak izan dituen maitasun erlazio baten bukaeraren aurrean egon gaitzekeenaren ideia hain da gogorra!


EAJk Ajuria Eneko poltrona galdu du eta ez zaio gustatu. Orain arte estatuko gobernu ezberdinekin izandako amodio erlazioak bestelakoak izan daitezke hemendik aurrera.

Agian urteetan erakutsi izan duten anbiguetateari buelta eman eta ez zaielakomeni konturatuko dira. Agian, behingoz herri honen etorkizunari buruz argi eta garbi hitz egingo dute. Ez dut uste hala ere.

Tamalez, etorkizun ez urrunegi batean berriro elkarrizkintziak egiten ikusiko ditugulakoan nago. Izan ere, orain mingainean darabilten diskurtsoa flatus vocis hutsa iruditzen bait zait.

K Komikia

Gorka Salaberria



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Txolarreak Berastegin abesten

BERASTEGI • Anoetako kabitk, Berastegiko plazara joan ziren atzo txolarreak. Bertan ospatu baitzen kantu bazkaria. Jende ugari hurbildu zen Urepel elkartera, Izaro Saizar, Maialen Etxeberria eta Iñaki Barriola berastegiarrak kantuan, eta Garazi Esnaola lizartzarra pianoan entzuteko. E.E



Eguraldiari aurre egiteko, kantuan

VILLABONA • Herria Kantuz ekimeneko beste saio bat izan zen atzo arratsaldean. Azken honetan erronka handia zuten gainera, herritarrek ez ezik, eguraldia ere animatzea. Saioa hasi baino lehen indarrak hartu zituzten, Zurbeltz elkarteak prestatutako meriendarekin. E.EZEIZA

Giroa deserosoa izan arren, eskaintza zabala izan da Tolosako azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna berandu xamar esnatu zen. Goizeko lehenengo ordutan, euria eta giro deserosoa zela eta, ez genuen erosle askorik ikusi mahaietan, baina piskanaka, goiza aurrera zihoala, berotu egin zen.

Eskaintza ordea oso polita izan zen lehenengo orduetatik. Barazki asko: ilarrak, babak, patata berria, zainzuriak, baratzuri berria, repollo aedo eta brokolia berritasunen artean. Perretxiko zerrenda oso polita ere bai: Ziza asko, bertakoa ere, eta onddoak. Prezioak ez ziren aldatu joan den astekoekin konparatuz.

Berdura plazan ere apaingarriko landare asko ikusi ahal izan genuen. Geranioa, alegria, gineakoa, klabelina, begonia dragon, siempreviva edo eta tagetea besteen artean.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4,00
Xarbota	4,00	6,00
Krisantemoa	12,00	20,00
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Ziza	20,00	60,00
Onddoak	32,00	-
Errezil sagarra	1,00	-
Kiwia	3,00	-

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Tomatea	2,00	4,00
Porrua	1,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kalabazia	0,76	-
Kalabaza	1,50	3,00

Liburuaren Nazioarteko Eguna

» Iritzia

Susana Larre
Udal Liburutegiko arduraduna

Apirilak 2 Haur Liburuaren Nazioarteko eguna izan zen, apirilak 23, berriz, Liburuarena. Urtero liburuari omenalditxo egin behar zaion aldekoa izan arren, nire ustez, egun horietan burutzen diren ekintza puntualek ez dute eragin handirik irakurketazaletasuna sustatzeko.

Irakurtzeko ohiturak bultzatzeko: alde batetik, epe luzean garatuko den proiektu orokor bat diseinatu behar da; eta bestetik, irakurketaren inguruan lanean dabiltzanen eragile guztien ahaleginen koordinazioa, hau da, ikaste-

Eragileek elkarlanean aritu behar dute liburua ohiko elementua bihurtu arte gure gizartearen

Irakurketa gaizki banatuta dago: gutxi batzuk asko irakurtzen dute eta askok ezer gutxi

txeek, familiek, liburuazainek, idazleek, argitaletxeek... eta bereziki agintariak elkar lanean aritu behar dute irakurketa eta liburua ohiko elementua bihurtu arte gure gizartearen.

Zoritzarrez, halako proiektuek erabakiak hartzen dituzten kon-

promisoa eta dirua eskatzen dute, eta nik behintzat Euskadin faltan botatzen ditut biak.

Esandakoarekin ez dut esan nahi gure lurraldean irakurtzen ez denik. Urte hauetan liburutegian eta nire inguruan ikusi dudana gatik esan dezaket gaur egun liburu asko irakurtzen direla. Tamalez, irakurketa hau gaizki banatuta dago, gutxiengo batek liburu asko irakurtzen ditu, eta asko dira ezer gutxi irakurtzen dutenak, etabeste asko ezer ere ez.

Denbora falta da irakurtzen ez duenaren aitzakia. Egia da, jende asko etortzen dela lehenengo aldiz liburutegira jubilatu ondoren. Hala ere, nik uste dut, aitzakia besterik ez dela, beti gelditzen zaigu tartaren bat, zailena izaten da erabakitzea zertan erabili nahi dugun, eta askotan telebista eta liburuaren artean lehenengo aukeratzen da.

Nik uste dut irakurtzea kirola praktikatzera bezalako da, zenbat eta gehiago praktikatu orduan eta gogo gehiago duzu praktikatzeko jarraitzeko; eta alderantziz, zenbat eta gutxiago praktikatu, orduan eta ahalegin gehiago eskatzen dizu praktikatzeko. Ondorioz, askok baztertzeko dute irakurketa, plazerra baino esfortzua delako.

Kirol kanpainak antolatzen diren bezala, zergatik ez dira irakurketa kanpainak antolatzen? Eta kanpaina hitza erabiltzen dudanean, benetako kanpaina bat esan nahi dut: aurrekontua duen kanpaina, herri mailakoa, ondo diseinatua eta zuzendua.

Z Zurea da Hitza

info

MIREN MUJICA TOLARETXIPI (LOATZO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA)

Loatzori buruz esan dituzuenaren aurrean, erantzutera behartu gaituzte:

1) Loatzo musika eskola (musika eskola gehienak bezalaxe), matrikularekin batera 30 kobratzeko erabakia hartua du. Honela ikasleak irailaren ikasketan musikakal hasiko dituenaren ziurtasuna ematen bai digu.

2) Loatzo musika eskolaren erabakiak, batzordean seriozki aztertu eta gero izan dira. Horrek ez du esan nahi inoiz hutsegiterik egin ez dugunik.

3) Loatzo musika eskola herri guztietan burutzen ari den batzarrean, (komunikabideetan iragarriak izan dira) edozein herritarrek bere kexa, edo zalantza azaltzeko aukera du.

4) Zorionez, Loatzo musika eskolaren ibilbide honetan, esku batekin konta daitezkeen kexak etorri zaizkigu, eta zenbaitzuk nahi ez badute ere, oraindik hasierako ilusioari eusten diogu eta irakasle, guraso eta politikariek esker, 8 herrietan musikak toki preziatua du.

Eskerrik asko eta nahi duzuen arte.

@ Argazki lehiaketa. HITZA-

ren IX. Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak ikusgai daude gure webgunean, 'Irudietan' atalean. Sartu eta zuk ere zurea bidali dezakezu apirilaren 30a baino lehen. Sari interesgarriak daukazu zain!

www.tolosaldekohitza.info

B Blogteka

info


Hitzaldia Samaniegon

Datorren asteartean, apirilak 28, *Gatazka konpontzeko modu positiboak* gaiaren inguruan hitzaldi bat antolatuko da Elkarbizitza Planaren barruan. Hitzalaria "GEUZ" taldeko arduraduna den Lucia Gorbeña izango da, arratsaldeko 16:30ean Haur Hezkuntzako erabilera anitzeko gelan.

Samaniego ikastetxeko gurasoen batzarra

Datorren asteazkenean, apirilak 29, ikastetxeko gurasoen urteko Batzar Orokorra egingo da Tolosako Kultur Etxean (Triangulo Plazan) arratsaldeko 7tan. Bertan, Gorosti elkartearen urteko balantzea aurkezteaz gain, aurrerantzean burutuko diren ekintzak eta kezkak edo zalantzak argitzeko aukera ere egongo da. Bilerak irauten duen bitartean haurtzaindegi zerbizua egongo da hantxe bertan.

Samaniego ikastetxea
<http://www.tolosaldekohitza.info/>
blogak/samaniego



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Ramon Apalantzak hirugarren egin zuen; errepidea bustita egotearekin arriskutsua zegoen. Irudian, Abaltzisketatik Amezetarako tramoan. NEREA URBIZU

Xabier Lujua izan da II. Ñañarri Rallyesprinteko azkarrena

Kirola » 83 auto aritu ziren; tartean, Evangelistak eta Arrabalek egin zuten kale; euriaren ondorioz, iaz baino jende gutxiago ibili zen zirkuitoan.

NEREA URBIZU

Euriarekin errepidea arriskutsua zegoen atzo Alegialdean. Irurako Ikastolak Hondarribiko Sardara Motor Elkartearekin elkarlanean antolatutako II. Ñañarri Rallyesprinta jokatu zuten 83 auto azkarrak. Ikusle gehienek espero ez zuten gertatu zen: Xabier Lujua

irabazi zuen Ñañarri Rallyesprinta. Hiru aldiz egin behar zuten zirkuitoa (Alegiatik Amezetara Orenda indik abiatuta).

Lehenengo bi bueltak egiten azkarrena Joseba Zapirain izan zen, Peugeot 206 WRC autoarekin. Horregatik, irabazlea bera izango zela uste zuten gehienek. Bigarren

aldian, zirkuitoa egiteko bost minutu eta 57 segundo behar izan zituen, lehenengoan baino lau segundo gutxiago, hain zuten. Ondoren, Lujua izan zen azkarrena, Mitsubishi EVO V autoarekin.

Azken buelta Lujua egin zuen azkarren, 6 minutu eta 14 segundotan. Apalantzak 11 segundo gehiagotan, eta Joseba Zapirainek 30 segundo gehiago. Ez zitzaion ezer berezirik gertatu, baina, antza, gehiago kostatu zitzaion. Ondorioz, bigarren gelditu zen sailkalpen nagusian.

90 gidaritik 83k egin zuten

Aipatu beharra da, faboritoen artean bi ez zirela atara: Tony Evangelista eta Luciano Arrabal, hain zuten ere. Guztira, 90 auto gidari zeuden baina azkenean 83k hartu zuten parte. Bigarren bira 17:18ean hasi zen eta minuturo auto bat ateratzen zenez, 18:30a inguruan bukatu zuten. Hirugarrena, berriz, 19:05ean hasi zen.

Eguraldi kaxkarra egin zuen eta parte-hartzaileek beraiek esan bezala, «oso arriskutsua zegoen zozua, zaila eta kontuz ibiltzekoa».

» SAILKAPENA

- **Lehenengoa.** Xabier Lujua (6 minutu eta 14 segundo).
- **Bigarrena.** Joseba Zapirain (sei segundo gehiago).
- **Hirugarrena.** Ramon Apalantza (17 segundo gehiago).
- **Laugarrena.** Txus Jaio (22 segundo gehiago).

Horretaz gain, joan den urteko giroa ez zela errepikatu aipatu zuten. Iazko giroa bestelakoa izan zen, eguzkipean zeuden ikusleak, eta aurten, euripean. Horregatik, jende askoz gutxiago gerturatu zen rallyesprinterera, baina hala ere, giro ona sortu zuten.

Eguraldi kaxkarra

Ia egun osoan zehar eguraldi kaxkarra egin zuen. Ñañarri Rallyesprinta egiten, gutxi gorabehera lau ordu eta erdi aritu ziren autoak gora eta behera: minuturo kotxe bana ateratzen zen eta ia 90 zirenez, ordu eta erdiko proba zen baikoitza. Guztia bukatu zenerako 20:30a zen.

Euriagotik hasi zuen arratsaldearen erdialdean (bigarren proba bukatu ondoren). Honen ondoren, ikusleak euren autoetara hurbiltzen hasi ziren, blai eginda. Baina seguruenik, Joseba Zapirain txapeladuna izango zelakoan joan ziren.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume eskalduna behar da arratsaldeetarako. Adineko pertsona zaintzeko, kotxea behar du. Interesatuak deitu gaueko zortziak eta hamarrak bitartean ondorengo telefono zenbakira: 943 11 72 85.

■ **Etxeko lanak.** Emakume eskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko zein adinekoak zaintzeko. Autoarekin. Interesatuak, harremanetan jartzeko deitu 943 67 38 35 zenbakira.

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Interesatuak deitu inongo konpromezurik gabe. Harremanetarako telefono zenbakia: Irene: 638 94 46 04 / Itsaso: 695 70 82 71.

■ **Zaintzailea.** Emakume eskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Ordutegia: 10:30etik 13:30era. Telefona: 625 70 50 59.

SALGAI

■ **Etxea.** Intzan, herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa, modu onean salgai. Ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerarekin. 628 030 727, 609 218 341, 646 111 485 edo estanga_intz@hotmail.com helbide elektronikoa.



Pello Zabalaren
Eguraldia beti airean
liburua

Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Apirilaren 25ean, larunbata, BERRIArekin.

2.- KUPJOAK ITSATSU

Apirilaren 25etik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 4.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta, handik bi astera, kiosko berean izango duzu liburua. 3,90 €-ren truke jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete beharko, baizik eta zuzenean deitu beharko duzue Harpidetza Saileko telefonora: (0034) 943-30 43 45.



Apirilak 25, larunbata
kartilla eta 1. kupoi berriarekin

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:
Nahikoa izaningo duzue 943-30 43 45
telefonora deituz edo www.berria.info
webgunean izena ematez, eta 3,40 €-ren
truke etxean jositako duzue liburua.

kutxa

AUKERA EZAZU
BIZI EUSKARAZ
berria

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

Eguna: maiatzaren 5a.

Tokia: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea.

Ordua: arratsaldeko laurretan.

BIZKAIAN

Eguna: maiatzaren 5a.

Tokia: Leioako campuseko eraikin nagusian, 1. gelan.

Ordua: eguerdiko ordu batean.

ARABAN

Eguna: maiatzaren 6a.

Tokia: BERRIAREN Gasteizko egoitzan, Bizenta Mogel 6, behe.

Ordua: goizeko bederatzitik eta erdietan.

NAFARROAN

Eguna: maiatzaren 5a.

Tokia: BERRIAREN Iruñeko egoitzan, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko

eskailera, 13. ezkerre.

Ordua: goizeko hamarretan.

Probara curriculuma eraman behar da

Inaxio Perurenak lortu du 234 kiloko zilindroa esku bakarrarekin altxatzea

Leitza » Aizkolarien Urrezko Txapelketaren baitan Arkaitz Olanok ezin izan zuen Ander Erasunen aurrean.

NEREA URBIZU

«Kezkati» bazegoen ere, Inaxio Perurenak atzo lortu zuen nahi zuena: bere marka pertsonala egitea. Esku bakarrarekin sorbaldala gainean, herritarren animo askoren artean 234 kiloko zilindroa jarri zuen. Negua gaizki pasa du leitzarrak, gaixo askotan, gripea eta katarroak zirela eta. Azken egunetan ere ez tul handia izan du, baina ez da oztopoa izan nahi zuena lortzeko. Gainera, herritarren aldetik jaso zuen babesa eta animoak handiak izan ziren atzo Amazabal pilotalekuan.

Beroketa egiten hasi zen Perurena, lehenik 202 kiloko harriarekin egin zuen, esku bakarrarekin saiatuz. Ondoren, 230 kiloko altxatu zuen modu berean. Gero, berriaz ere 202 kiloko hartu zuen bai-

Negua gaizki pasata ere eta azken egunetan ez tula izanik ere, harria gora eraman zuen

Mikel Mindegiaik desafioa bota zuen, urriaren bukaera aldera egitekoa, hain zuzen

na bi eskurekin. Bukatzeko, 230 kiloko hartu zuen esku bakarrarekin.

Azkenean, 234 kiloko zilindroari heldu zion, eta bi kolpe eman ondoren, gora iristea pixka bat kostatu zitzaion, baina balekoa izan zen, bere lekuan mantentzea lortu bai-



Ezkerrean, Inaxio Perurena, harria altxatzen. Eskuinean, Mindegia, zutikako enborra mozten. ESTI EZEIZA



tzuen harrizarra. Herritarbatzuk, harri-jasotzaile gaztea urduririkusten zutela zioten, aitzak berak bezala, «kezkarekin» baitzegoen. Izan ere, «negu bitxia izan du». Baina proba egiten hasi, eta harria gora eraman zuen leitzarrak.

Erasun, Olanoren gainetik

Urrezko Aizkora Txapelketako final-laurdena ere jokatu zen atzo Leitza eta bertan parte hartu zuten Saralegi eta Olano aizkolarik gazteek, bigarren mailan. Erasun, Olano baino gehiago izan zen, tarte

handi xamarra ateraz. Honela, Erasunek hiru puntuak lortu zituen. Datorren jardunaldian, Erasunek Saralegiren kontra egin beharko du.

Egin behar izan zituzten probak hauek izan ziren: ahalik eta kolpe gutxiarekin enborra moztea, erlojupekoa, zutika moztea eta biak elkarren kontra hiru egur nork lehenago moztu.

60 urterekin desafioa

Leitzako Amazabalen Mikel Mindegia aizkolarik handiak sorpresa

eman zuen: desafioa bota zuen. 60 urte gaur bertan bete ditu eta bertan zegoen edonork onar dezake desafioa. Hau urri bukaeran edo azaroaren hasieran izan litezateke. Proba bera 60 ontzako 20 enbor moztea izan litezateke. Datorren asteburuan agertu beharko da desafioan parte hartu nahi duen hori, Tolosako Kantabriko tabernan.

Iñaki Azurmendiren kontra aritu zen Urrezko Aizkora Txapelketan, eta hura ere irabazi egin zuen Mikel Mindegiaik.

Irazabalbeitia, Aralar koalizioko Euskal Herriko zerrendaburua Europarako

Alkiza » «Bigarren europarlamentaria lortzeko bideak irekiko zaizkigu osatutako taldearekin».

ERREDAKZIOA

Inaki Irazabalbeitia izango da Aralarrek osatzen duen koalizioko Euskal Herriko zerrendaburua Europako Legebiltzarreko. Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioa Aralarrez gain, ERC, BNG, Los Verdes, EA eta Chunta Aragonesista alderdiek osatzen dute.

Europako Legebiltzarreko bozetan Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioko Euskal Herriko zerrendaburua Inaki Irazabalbeitia (Aralar) izango da. ERC, BNG, Aralar, Los Verdes, EA eta Chunta Aragonesista alderdiek osatzen dute koalizioa.

Europako Legebiltzarrei begira koalizioko burua Oriol Junqueras (ERC) izango da eta bigarren Ana Miranda (BNG). Irazabalbeitia hirugarrena da zerrenda horretan. Ekainaren 7an egingo dira Europako Legebiltzarreko bozak.

«Bigarren europarlamentaria lortzeko aukerak zabalduz»

Jon Abril Aralarreko koordinatzaileordeak esan zuenez, «koalizio berriak ezkerreko eta abertzaleon hautagaitza zabal bat bermatzen du Europan, eta bigarren europarlamentaria lortzeko aukerak ere zabaltzen ditu».

Aralarrek ziurtatua du europarlamentaria denbora batez. «Inork ez daki zenbat denborarako izango dugun, proportzionaliki zehaztuko delako lortutako bozken arabera; gauza segurua da ERC, BNG, Aralar eta Los Verdesen artean banatuko dela europarlamentaria».

OHAR GARRANTZITSUA

DESGAITASUN / MENDEKOTASUN
KENKARIA ERRENTA ZERGAREN AITORPENEAN

Gizarte Politikako Departamentuak, urtero garai hauetan, errenta kanpainarekin bat etorri, ziurtagiria bidaltzen die desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona guztiei dagokien kenkarirako eskubidea egiaztatzeko. Aurten, eta aurrerantzean, ez da ziurtagiri hori bidaliko, Foru Ogasunak baduelako dagoeneko kenkari hori egiteko behar duen informazioa.

Hala ere, aipatutako ziurtagiria bidali egin zaie 2008an lehenengo aldiz balorazioa egin zaien pertsonari (lehen aldiz kenkarirako eskubidea izango dute) eta baita 2008an berrikuspena egin zaienei ere (kendu beharreko kopuruan aldatetaren bat izan daiteke).



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

AVISO IMPORTANTE

DEDUCCIÓN
POR DISCAPACIDAD / DEPENDENCIA EN EL IRPF

Desde el Departamento de Política Social, todos los años, durante estas fechas, coincidiendo con la campaña de renta, se remite por correo a todas las personas con discapacidad o dependencia el certificado, a efectos de acreditar el derecho a la deducción correspondiente. Este año, y en lo sucesivo, se va a prescindir de dicho envío, puesto que la Hacienda Foral ya dispone de la información necesaria para practicar dicha deducción. No obstante a las personas valoradas por primera vez durante 2008 (y que, por tanto, practicarán la deducción por primera vez), así como a las que han sido objeto de revisión durante 2008 (lo que puede dar lugar a variación en la cuantía a deducir), sí se les ha remitido el certificado.

Gipuzkoa
zure ondoan

Taunik jarri du herriko lehenengo euskara plana abian lan-munduan

Villabona » Planarekin prozesuan aurrera egiteko Tauni enpresak Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntza jaso du.

ERREDAKZIOA

Pixkanaka, euskara ari da zabalitzen gizarteko esparru guztietara: merkataritza, kultura, irakaskuntza, administrazioa, kirolak, aisialdia... Lan-munduan ere presentzia eta erabilera areagotzen ari da eta gero eta enpresa gehiago dira euskararen aldeko apustua egin dutenak, arlo askotakoak, gainera: industria, zerbitzuak, finantza-erakundeak... Eta Villabonako lan-munduan Tauni enpresa aitzindari izan da, Euskara Plana martxan jarri duen herriko lehen enpresa izan baita.

Iaz Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzua herriko hainbat enprekin harremanetan jarri zen. Udalak lan-munduan euskara sustatzeko duen diru-laguntzaren berriz eman eta enpresa horiek euskararen diagnostikoa eta Euskara Planaren diseinua egitera animatzea zen helburua. Enpresa horietatik Tauni izan da Euskara Planaren diseinua egin eta Plana martxan jarri duena eta horretarako, Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak Elhuyar Aholkularitzaren zerbitzua kontratatu du.

Nondik norakoak

Tauni enpresak 16 langile ditu eta mekanizazioaren arloan lan egiten du. Enpresan euskarak bizi duen egoeraren diagnostikoa egin da eta diagnostikoa alderdi objektiboak (enpresako hainbat alorretan euskarak duen presentzia eta erabilera erreal) eta alderdi subjektiboak (pertsonek iritzia, balorazioa eta pertzepzioak) jaso dituzte.

Hori guztia osatzeko honako informazio-iturri hauek erabili dituzte: koordintzaileak bete duen datu-bilketarako fitxa, langileek erantzundako inkestak, langileei egindako elkarrizketa pertsonalak eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak enpresara egindako bisita.

Diagnostiko honetatik abiatuta, Tauniren egoerara egokitutako Euskara Plana diseinatu eta hurrengo urteetarako helburu orokorra zehaztu da: euskara eta gaztelania, biak, harreman- eta lan-hizkuntza izatea (kanpora zein barrura begira) eta euskarari lehenentasuna ematea. Eta Taunik



Tauni enpresa N-1 errepidearen ondoan dago. I. GARCIA

Tauni enpresak hamasei langile ditu eta mekanizazioaren arloan lan egiten du

euskararen egoeraren diagnostikoa egin ostean ezarritako erronka hori hiru urteko epean betetzeko ekintza zehatzak ere definitu dira eta baita ekintza horiek aurrera ateratzeko enpresako kideek hartu beharreko funtzioak ere.

Euskara Planeko helburua zehaztean eta plana bera martxan jartzean, hainbat arrazoi erabakigarriak izan dira eta bereziki nabarmendu behar dira. Alde batek, enpresa ingurune euskalduneko kokatua egotea eta bezero nagusienak Gipuzkoako enpresak izatea. Bestetik, enpresan bertan ere euskararen ezagutza eta erabilera dezentekoa izatea. Zehazki euskararen ezagutza %81ekoa da eta erabilera %80ko. Azkenik, langileek Euskara Plana martxan jartzearen aldeko jarrera azaldu izana.

Duela hilabete gutxi, aurrez di-

seinatutako Euskara Plana martxan jarri da eta aurrera begira jarri dira. Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin jarraituko badute ere, Euskara Batzordea izango da Euskara Planaren arduraduna. Diseinuan bezala, planaren garapenean ere, zuzendaritzako kide den Eva Usandizaga izango da Euskara Planaren koordinatzailea eta zuzendaritzaren aldetik euskararen aldeko jarrera eta inplikazioa ezinbestekoa izango da.

Euskara plana martxan jartzearen arrazoiak

Hasteko, horrelako prozesu batean sartzen den enpresa indarrean dagoen araudia betetzeko ahalegina egiten ari da. Hau da, herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzen duelako eta, besteak beste, Konstituzioa, Autonomia Estatutuak jasotako euskararen erabilpena arautzeko 1982ko legea eta erabiltzaileen eta kontsumitzaileen eskubideen 2003ko legea betetzen ari delako.

Horrekin batera, enpresa batek zerbitzu edo produktuaren salmenta euskaraz egiten badu, «be-

Maite Arregi: «Langileek euskaraz egiteko aukera badute, langileen arteko kohesioa lortuko da»

zero euskaldunei harrera hobe egingen die», zehazten du Maite Arregi Villabonako Udaleko euskararen teknikariak. «Bide batez, merkatuan dagoen hutsunea bete dezake eta lehiakideen aurretik jatea ekar diezaike, baldin eta sektorean eskaintza hori egiten duen lehenengoa baldin bada», gaineratzen du. Eta produktua gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez eskaintzen jarraitu arren, «horren propaganda euskaraz ere egiteak gehiago saltzen lagundu diezaike», zehazten du. «Horrek guztiak, azken batean, bezero euskaldunarekiko hurbiltasuna bultzatzen du».

Bestalde, erakunde batek euskara kudeaketan txertatzen duenean, enpresaren barne-kohesioa lantzen duela dio Arregik: «Nabarmena da jadanik langile kontratatu berriak aurreko belaunaldikoak

baino euskaldunagoak direla eta, gainera, kasu batzuetan idatziz euskaraz gaztelaniaz baino erraztasun handiagoa dutela. Beraz, langileek euskaraz egiteko aukera baldin badute, langileen kohesioa lortuko da eta, ondorioz, langileak enpresarekin identifikatuago sentituko dira». Langileen gogobetetzea eta motibazioa handituko direla gaineratzen du.

Euskara enpresaren kudeaketan txertatzearen arrazoiekin jarraituz, ez da ahaztu behar erakunde batek prozesu hori abian jartzen duenean gizarte-erantzukizuna betetzeko ahalegina egiten ari dela. «Izan ere, enpresak gizarteko beste erakunde batzuekin harremanetan dauden atalak dira eta, beraz, euskara kudeaketan txertatzean, ingurua kontuan hartzen duela adierazi eta euskara berreskuratzeko ahaleginean gizartearekin bat egiten du», dio euskararen teknikariak.

Gaur egungo kudeaketa-eredu aurreratuei erreparatzen badiugu, «bezeroek, pertsonak eta gizarteak pisu berezia dutela ikusiko dugu», zehazten du Arregik. «Hori aurretik esandakoarekin lotzen badugu, euskara kudeaketan txertatzen duen enpresak kalitate hobe eskaintzen ari dela ziurtatu daiteke, barneko eta kanpoko partaideen gogobetetzea handituko duelako».

Diru laguntzak eta informazioa

Villabonako Udalak lan-munduan ere euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko ahaleginetan jarraitu nahi du, eta, aurrerantzean ere, euskararen egoeraren diagnostikoa eta diseinua egiteko nahiz plan horiek martxan jartzeko diru laguntza emateko asmoa azaldu du. Gainera, kontuan izan behar da Udalak ezezik, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere Euskara Planetarako diru-laguntzak ematen dituztela. «Horrela, diru laguntzei esker, enpresek berreskuratu egiten dute Euskara Planean egindako gastu gehiena», azaltzen du Arregik.

«Euskararen alorra ez dago krisian: beti dago zer egina eta zer hobetua. Batzuentzat, krisi-garaiak egokia da trebatzeko eta formazioan inbertitzeko, eta aukera ezin hobe da, baita ere, euskarari heletzea, horretan egindako lanari esker lehiakideek ez daukaten balio erantsi edo plus batez jabetzeko, baita enpresa lekuetara dagoen gizartearekiko konpromisoa erakusteko ere», dio euskararen teknikariak.

Hori guztia dela eta, Udaletik animatu nahi dituzte Villabonako enpresak «euskararen aldeko apustua egiteko, euskararen inbertitzeko, euskaraz jabetzeko eta balio erantsi hori berenganatzeko». Euskara Planei buruzko informazio gehiago nahi duenak Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake: 943 69 3 5 01 telefono zenbakian edo euskara@villabona.net helbidera idatziz.

Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta, eskultura proiektua ari da burutzen Guillermo Olmo; Maiatzaren 1ean inauguratuko dute lehena, San Martin Egunean, bestea.

Harrespila Aralarren

JOXEMI SAIZAR

Harrespila berria dago Aralarren. Ez beste guztiak bezalakoak, gizakiak landutakoa baizik. Larraitzera inguratzeko denak ikusiko du zutarririk ez agertu direla aparkalekuaren bukaerako partean, mendirako igoera hasten den lekuan. Aurreko igandean jarri zituzten auzolanen inguruko herritar batzuk eta asteburu honetan bertan lanak bukatzea espero dute, hurrengo ostiralean, Maiatzak 1, larre irekieran inauguratu ahal izateko.

Izan ere urteroko festa horretan (aurten hamabigarren urtez egingo dute), ohiko egitarauaz gain, aurten zerbait berezia egin nahi izan dute, Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena betetzen dela eta. 1409ko azaroaren 14ean sinatu ziren Ordizian mankomunitatearen sorrerako eskriturak.

Aralarko mankomunitatea 15 herrik osatzen dute: Abaltzisketa, Amezketa, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain, Beasain, Ataun, Lazkao, Gaintza, Arama, Altzaga, Itsasondo, Legorreta, Ordizia eta Zaldubia. 3.500 hektareako gunea kudeatzen dute. Nafarroako partean beste 22 herrik dituzte lurrak Aralarren. «Sei mende hauetan mendien aprobetxamendu zuzena izan dute, batez ere ganaduan eta

Urteurrena dela eta, urtean zehar ekitaldi gehiago ere burutuko dituzte

Mankomunitateak garrantzi handia izan du sei mende hauetan zehar Aralar kudeatzen

basoan, eta mankomunitateak garrantzi handia izan du. XIV. mendean arte lur hauek Nafarroakoak ziren. Gero Gaztelako erresumak bereganatu zituen eta Enrique III. Erregeak Juan de Amezketari eman zizkion, 1400 urtearen inguruan, gerran emandako zerbitzuen truke. Handik gutxira saldu beharrean aurkitu zen eta 15 herri hauei saldu zien 1.400 urrezko florinen truke», azaldu du Jose Antonio Irastorza goardak.

«Amerikako aurkikuntzaren garaia erekin bat dator mankomunitatearen sorrera, ontziolak egiten erabili zuten Aralarko egurra, ikazkintzarako ere bai Basoaren

hustiapen garrantzitsua izan da», dio Irastorzak. Azken mendeetan artzantzaren zabalkuntzak basoari leku jan dio, larreak handitzen joan direlako. 1821eko baso eta larre arteko banaketarekin konparatuz adibidez, ordutik hona basoari %40a jan zaio larreerarako. Ganda gehiago dago eta mendia bera da, ez da handitu. Gaur egun Aralarren 18.000 ardi eta 1.400 behi eta behor egoteko kalkuluak dituzte eginak. 2.200 hektarea daude larreerarako. Horren kudeaketaz arduratzen da mankomunitatea. Eta 1994ean gune babestua izendatu zuten eta ondoren parke naturala. «Erabaki hori hartzea onerako izan zen. Gaur egungo gizarteak beste erabilpen batzuk ematen dizkio. Paisaje aldetik gune aberatsa da, ibiltariak hor daude... Ematen diren pausoak ondo pentsatuta eman behar dira», adierazten du goardak.

Hala erabakita, Ordiziako alkatea da mankomunitateko lehendakaria, Jose Miguel Santamaria gaur egun. Eta lehendakariordea, Amezketa alkatea, Jesus Iñurritak kasu honetan. «Hiru hilabetez behin biltzen gara proposamenen aurrean erabakia hartzeko. Orain maizago urteurrena delako. Eta gero lan talde bat dago, beste alkate batzuk eta ganaduzaleen ordezkariekin batera, eguneroko gaiak jorratzeko», dio Iñurritak. Bulego lana Ordiziako udaletik bideratzen dute eta langile bakarra goardak da, Jose Antonio Irastorza zaldubitarra.

Beste eskultura, baso erreaz Urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi izango dira urtean zehar eta laster emango dute horren berri zehatza: Alfredo Morazaren liburu baten argitalpena, mendi ibilaldia, unitate didaktikoa... Ekitaldien hasiera eta bukaerarako bi eskulturak jarri eta inauguratzea pentsatu dute. Alde batetik puntu esanguratsu bat jartzeko garrantzitsua irudituz zitzaizkien. Larraitzen kokatuko dute Guillermo Olmoren *Harrespilak* eskultura inauguratuko dute maiatzaren 1ean, Larre Irekieraren Egunarekin batera. Inaugurazioan Gipuzkoako ahaldu nagusia, mankomunitateko herrietako alkateak eta Nafarroako ordezkariak izango dira eta eskulturaren bertan zin egite moduko bat egingo dute. Urteko egitarauaren bukaera gisa, azaroan, San Martin ermitaren ondoan, Amezketan,



Larraitzen jada 16 harrietako batzuk borobilean jarrita daude, beste batzuk falta dira oraindik. JOXEMI SAIZAR

kokatuko dute beste eskultura. Mankomunitatearen sorrera azaroaren 14ean izan zenez eta azaroaren 11n San Martin eguna ospatzen denez, data horien inguruan izango da inaugurazio ekitaldi hori, egitarauari amaiera emango diona. Haritzeko 90 bat habe jarriko dituzte, baserrietatik lortuak,

erreta eta margotuta, baso moduko bat osatuz.

«Guillermo Olano artista beti ideiak ematen ari izan da eta Aralarri begiratuta, basoak falta zela ikusita, zerbait egin nahi zuen. Proiektu bat egin, gero Amezketako gazte batzuekin (argazkilaria, marrazkilaria) eta pertsona ezagun batzue-

kin (Jose Mari Otermin, Bixente Gorostidi) hasi zen elkarlanean eta ideia hau aurkeztu zuten. Herritar asko murgildu da proiektuan», azaldu du Amezketako alkateak. Abaltzisketa eta Amezketako udal-ekin batera, Gipuzkoako Foru Al- dundiak ere diru laguntza bat eman dut proiektu hau burutzek.

«Aralar harria eta egurra da eta horiekin egin behar ziren lan hauek»

GUILLERMO OLMO Eskulturgilea

Amezketak Guillermo Olmo artista dago bi eskultur proiektu hauen atzean; 'Harrespila'-ren azken lanetan topatu dugu.

J. SAIZAR

Guillermo Olmo (Sarria, Lugo, 1960) artista autodidakta umea zela etorri zen bizitzera Euskal Herrira, Zugaztieta (Trapaga, Bizkaia). Moskun, Parisen eta Bilboko aireportuan erakutsi izan ditu bere lanak. Azken urte hauetan Amezketan du lan tailerra, Egoarre baserrian.

Nola sortu zen eskultura hauen ideia?

Amezketako lagun batzuk omenaldi bat egin nahigean Aralarko basoari, batez ere gizakiaren hustiapenagatik desagertu den basoari, eta hori Gipuzkoa partean gertatu daguehienbat. Horretarako baserrietako habeak jaso, erre eta prestatu behar ditugu. Amezketako San Martin zelaian jarriko ditugu, Txindoki atzean dutela, horrela Txindokiren ikuspegi desberdina lortuko dugu, baso errearen atzean. Hori azaroan inauguratuko da, San Martin eguneko jaia dela eta.



Olmo harri bat lantzen. J. SAIZAR

Eta beste eskulturarena?

Aralarko Mankomunitateak 600 urte ditu aurten eta topaleku egitea enkargatu zidaten, hitzarmen edo ospakizun ekitaldi baterako egokia. Horretarako leku egokia Larraitz delako irudituz zaio eta han jarriko dugu. Mankomunitatea Aralar inguruko 15 herrik osatzen dutenez, 16 harriz osatutako harrespila egin dugu, Nafarroako zatia ere kontuan izanik. Udalen horien batasuna irudikatzen du eta Aralarri eta gizalditan bertan bizituko jendea irudikatu omenaldia da. Bertan dauden harrespilen itxura izango du gogoan. Azkenean bi proiektuak mankomunitatearen urtemugarekin lotu ditugu.

Zein materiala erabili duzu harrespila egiteko?

Hemen bertakoa, Aralarreko karreharria, Altzoko harrobiakoa.

Harri bakoitzak herri zehatz bat ordezkatzeko al du?

Ez, ukatu egin gara, udal batzuen partetik eskaera batzuk izan arren. Ez dugu horretan sartu nahi izan. Harri guztiak desberdinak eta irregularrak dira, Aralarren daudenak bezala.

Harri nahiko landuak direla ikusten dute.

Agian bukaera finagoa dute, gure garaikoa, ikusleak zalantzarik ez dezan izan, ez pentsatzeko jendeak duela hamar mila urteko harrespila dela, benetakoa.

Jendea gustura al dago?

Bai, aurreko igandean auzolanen jarri genituen lehen harriak eta jendea gustatu zaio lana. Horrelako lanak egiterako beti natura itxuraldatzeko beldurra izaten duzu, baina ez da hori gertatu, integratuta dago.

Harria eta egurra landu dituzue. Noizko burnia? Agian meategietan?

Aralar harria eta egurra da, bi material horiek dira nagusiak eta horiekin egin behar ziren lan hauek. Burnia ere sartzen da, baina orain gogor bi hauek egin ditugu.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

- **Tolosa.** *La vida secreta de las abejas* filma izango da ikusgai Leidor aretoan gaur 19:30ean eta bihar (Ikuslearen Eguna) 20:30ean.
- **Villabona.** Gurea aretoan *The Reader* filma emango dute gaur 19:30ean eta bihar 21:30ean.

Irteerak

- **Amezket.** Maiatzaren 3rako, iganderako, Lapurdi eta Nafarroa irteera antolatuta dute 60 urteko gura-koentzat 27 eurotan. Izena 09:00etatik 14:00etara udaletxean.

Kirola

- **Anoeta.** Saskibaloiko teknifikazio saioa izango da Abraham Olano kiroldegian 11:00etatik 12:30era, 1997 eta 1998 urteetan jaiotakoentzat.

Ikastaroak

- **Ikaztegieta.** Patinaje ikastaroa. Bost larunbatetan zehar, 10:00etatik 11:00etara. Maiatzaren 9an hasiko da; izena emateko epea hilaren 30ean itxiko da. Izena udaletxean 09:00etatik 15:00etara bitartean, bost euro ordainduz.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
 - **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
 - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Natura protagonista



ZARAUZ • Donostiatik ere baditugu parte-hartzaileak: Elizabetek hau kontatu digu: «Ez degu urrutira joan behar argazki politik ateratzeko... Euskal Herriko edozein txokotan lor daitezke argazki politik... Zarautzen aste santuko asteazkenan aterata dago... Arratsalde gau parte itzela egin zuen... benetan Zarautzeko malekoitik Getari bidean paseatzeko egun aparta». ELUXABETE ARRATIBEL (DONOSTIA)



KANTABRIA • Alegiatik beste argazki bat bidali digute, oraingoan Alaznek bidalia: «Argazkia Collados del Ason Parke Naturalean ateratakoa da. Parke hau Kantabriaren hego-ekialdean dago kokatuta, Bizkaitik gertu, eta kareharriak eta glaziar-egiturek paisaia berezi eta polita osatzen dute. Argazkia Ason ibaiaren jaiotzari dagokio. Eguraldiak ez zigun lagundu, baina abantaila izan zen alde batetik, berez ur-jauzi ikusgarria denari, hai-zek indar handiagoa ematen baitzion». ALAZNE CASIS (ALEGIA)



LANDAK • Haritz Landatan ibili zen Aste Santuan: «Argazki hau bidaltzen dizuet. Landatan ateratakoa da, bertan pasa ditut egun batzuk. Eguraldi txarra egin zuen egun honetari». HARITZ DOYARZABAL GALARZA

A Agurrak



Urte askoan!

Oier Apezetxea Muñagorri (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak txapeladun, etxeko guztien partetik.



Urte askoan!

Eider. Bihar 28 urte. Muxu bat. Segi horrela! Etxekoak. Ongi etorri Jabi! Preso eta iheslariak etxera!




bidali opor
hauetako argazkiak!



1.Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2.Saria

Larrea

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3.Saria

Gorrotxategiren saski berezia: Txokolatezko txapela, xaxu kaxa, teilak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
• **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZako materiala zozketatuko dugu!